



KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2025eko apirila - 259 zkia.



OBEGO

Obego taldea: Unai, Eritz, Unax eta Jon

Txaloak bukatu arte

EUSKARALDIA • ZAPATARI IKASLEAK GUREAN

BERTSO ESKOLAREN SORTZAILEEI OMENALDIA • ZIRIAKO ANDONEGI MIKROIPUINAK

MEMORIA ASTEA INSTITUTUAN



apain

Ongi etorri udaberriari!

Prestatu zure gazala udarako



Telefonoak

Osasuna

COVID-19 KORONABIRUSA

OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak.....	943 46 11 11
Anbulatorioa.....	943 60 43 00
DYA zentrala.....	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Alzheimer elkarteak	943 29 71 18

Botikak

Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar)	943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48 / 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte bulegoa	943 60 42 47
Anai Arte taberna	943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa	943 60 38 71
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaiz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Kontsortzioa	943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 89 91 52
San Miguel Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua	943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua	943 60 71 37
Udal Euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia	638 67 23 83
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa Autobusak	900 12 14 00
BizkaiBus	902 22 22 65
EuskoTren	944 333 333
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
----------------	--------------

Iritzixa

Agurtzane Urriolabeitia

LAPIKO ARTEAN

Gaurkoan amantala jantzi eta sukalde barrura sartzea nijo. Sukalde edo eskaratzean egotea niretzat plazer txikia delako eta ume denborara eramaten naueko. Lapikoetatik ateratzen zen lurrinak, amamaren kontuak, mahai bueltako tertuliak... gozamen hutsa!

Duela aste batzuk sukaldeko altzariak saltzen dituen denda batean sartu eta hotzikara sortu zitzaizkidan. Halako diseinu minimalistak eta futuristak ikusita, zeharo kezkatuta atera nintzen. Horrelako sukalde batean, zein hasten da kroketa biltzen, odolesteak egiten edo marmitorako atuna zatitzen? Nola ausartu sugain perfektuak zikitzen? Eta sukaldeko erremintak ateratzeko tapen heldulekua non dago? Gaur egungo sukaldeetan sartzeak kirofano batean sartzeak baino ikara handiagoa ematen du.

Por zierito! Dagoeneko jabetuko zineten sukaldeak gero eta txikiagoak direla eta egongelak gero eta haundiagoak. Agian etxeko aisialdiari denbora gehiago eskaintzen diogulako eta sukaldean kozinatzen jarduteari muzin egiten diogulako izango da.

Gurean bizitza sukaldean egin izan da, baina ohitura hori ere galtzen ari zaigu. Eskerrak oraindik «aintzinako» batzuk gelditzen garen. Sukalde bueltan jardutea ez da txantxetako kontua. Batzuk plazerez egiten dute, txikiak bere tintan egin ostean, etxekoan aurpegi adeitsuak eta platerak garbituta ikusita pozten direlako. Besteentzat denbora eskaintzeak zoriontsu egiten dituelako, alegia.

Beste batzuk, ordea, gorroto dute sukaldean sartzea. Edozer aitzakia da ona bertatik ihes egiteko. Gaur egungo bizimoldeek ere horretara garamatzate. Beti presaka gabilitza eta ondo jateak eta mahai bueltan lasai egoteak lehentasuna galdu dute.

Sukaldatea denbora galtzea bilakatu da eta hortik eratorriko diren ondorioak ez ditugu behar bezala neurtu. Jateko era erraldien pausoz aldatzen doa eta osasunean izango dituen kalteak ez ditugu kalibratu. Orain gutxirarte lapikoko gutxi eta zartagineko asko zen gure kezka iturri. Baina kontua okerrera joan da eta gaur egun kazuela gutxi eta plastiko asko daukagu gure sukaldeetan.

Datuek ez dute gezurrik esaten. Bost urteren buruan, prozesatutako elikagaien kontsumoa beldugarri hazi da. Ikusi besterik ez dago saltoki haundietan gero eta apal gehiago dagoela prestatutako janariekin. Horrek plastiko kontsumo itzela sortzen du eta, epe ertainera, osasun galera. Errua gaur egungo sukaldeena izango omen da: su eta laba gutxi eta mikrouhin labe asko dituztelako gure sukalde modernoek.

Sukaldaritza ikasbidea da, praktikatzeko lortzen dena, presa eta alferkeriaren aurkako txertoa. Maitasunez sukaldatea, berriz, etxe-koentzat eta norberarentzat, zoriontasun goren. Egunero ez bada, astean birritan, astindu lapikoak eta zartaginak, elkartu sukaldeko mahai bueltan eta berakatz-zopa ederra jaten, tertulia egin.

Argitaratzailea

Karenka Komunikazio Elkarteak
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku

Tel. 635 748 393

e-posta aldizkaria@kalaputxi.eus

Webgunea: www.kalaputxi.eus

Bloga www.kalaputxi.blogspot.com

Laguntzailea **Mutrikuko Udala**

Kolaboratzaileak

Josu Larrañaga, Eneko Erraiz,
Inhar Mutiozabal

Tirada 2.200 ale

Lege Gordailua **SS-787/01**

ISSN **1579-4792**

Inprimategia **EUSKALINPRI**

Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkariak
Mutrikuko Udalen dirulaguntza
jasotzen du:



Mutrikuko Udala



astelehenetik ostiralera							
DB03	LEKEITIO - DONOSTIA						
Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00		
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25		
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30		
Donostia	* 7:55	11:30	14:30	19:30	---	* Unibertsitatetik	
DB03	DONOSTIA - LEKEITIO						
Donostia	8:00	11:00	* 14:30	18:00	20:30	* Unibertsitatetik	
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20		
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05		
DB04	ONDARROA - MALLABIA						
Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45	
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	22:55	
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15	
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---	
OSTIRAL GAUEAN Mutrikutik: 23:25; 01:15.							
DB04	MALLABIA - ONDARROA						
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	* 22:05	
Eibar	6:05	7:05	orduro	21:05	22:10	22:15	
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:20	22:30	
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40	
OSTIRAL GAUEAN Mutrikura heldu: 00:25. (Eibarren -25 min.)							
DB05	MUTRIKU - ZUMAIA						
Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25	
Deba	6:40	9:45	11:40	13:40	16:40	18:40	
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10	
DB05	ZUMAIA - MUTRIKU						
Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10		
Deba ^{35 min. zain}	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40		
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25		
DB06	ONDARROA - SORALUZE						
Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40
DB06	SORALUZE - ONDARROA						
Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak							
DB03	LEKEITIO - DONOSTIA						
Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00			
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25			
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30			
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:10			
DB03	DONOSTIA - LEKEITIO						
Donostia	10:30	14:30	17:00	20:30	21:00		
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50		
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35		
DB04	ONDARROA - MALLABIA						
Mutriku	7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	22:15	
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25	
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45	
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---	
LARUNBAT GAUEAN Mutrikutik: 23:25, 23:55, 01:55, 03:55, 05:55.							
DB04	MALLABIA - ONDARROA						
Mallabia	6:50	7:45	orduro	19:45	20:45	21:45	22:00
Eibar	7:00	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00	22:15
Mendaro	7:35	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35	22:40
Mutriku	7:55	8:55	orduro	20:55	21:55	22:55	23:00
LARUNBAT GAUEAN Mutrikura heldu: 01:10; 03:10; 05:10; 06:10. (Eibarren -25 min.)							
DB05	MUTRIKU - ZUMAIA						
Mutriku	8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10
DB05	ZUMAIA - MUTRIKU						
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25
DB06	ONDARROA - SORALUZE						
Mutriku	9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45	
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20	
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40	
DB06	SORALUZE - ONDARROA						
Soraluze	8:40	10:40	12:40	16:40	18:40	20:40	
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45	
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00	
Mutriku	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20	

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero		Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
BILBOTIK		7:00	20:00	DonostiaTIK	5:50	7:50	20:50
Eibar	6:14	7:14	21:14	Errekalde	5:59	7:59	20:59
Elgoibar	6:24	7:24	21:24	Orio	6:14	8:14	21:14
Mendaro	6:33	7:33	21:33	Zarautz	6:20	8:20	21:20
DEBA	6:44	7:44	21:44	Zumaia	6:29	8:29	21:29
Zumaia	7:00	8:00	22:00	DEBA	6:43	8:43	21:43
Zarautz	7:08	8:08	22:08	Mendaro	6:52	8:52	21:52
Orio	7:15	8:15	22:15	Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Errekalde	7:29	8:29	22:29	Eibar	7:11	9:11	22:11
Donostia	7:38	8:38	22:38	Bilbo	8:20	10:20	23:20

ONDARROA - BILBO			BILBO - ONDARROA		
astelehenetik ostiralera			astelehenetik ostiralera		
	lehena	azkena		lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40	A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25			Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	6:10	20:10	A3915 Durangotik	7:40	21:40
Ondarroatik Bilbora zuzenean: 6:30; 7:30					
jai egunak			jai egunak		
A3916 Ermuatik	6:40	20:40	A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	7:10	20:10	A3915 Durangotik	8:40	21:40

LURRALDEBUS AUTOBUSAK HERRITARREI PLANTO

GERTAERA: Debatik laurden gutxiagotan Ondarrurantz ateratzen den autobusa ez da erraza harrapatzen.

Donostiatik datorren trenak uste genuen konbinatu egiten zuela Deban Mutrikura datorren autobusarekin, baina ez da hala gertatzen, ez behintzat Mallabia-Ondarroa DB04 linearekin.

Orain, gainera, Debako tren geltokiko obrak direla-eta, okerrago: Donostiatik datorren trenetik irten, kontroletik pasa, ate nagusitik igaro eta autobuseraino iristeko ibilbidea bikoiztu egin da! Badaezpada lehen ere, presaka-presaka joaten ginen autobusera, baina orain korrika-korrika joan beharra daukagu, gazteak joaten dira eta justu-justu autobusa harrapatu. Zer pasatzen da edadekoekin? Ba... batzuetan hartzen dugula, eta hurrengoetan ez. Autobusa muturren aurretik nola pasatzen den ikusi behar izaten dugu eta hurrengo autobusa heldu arte zain gelditu.

GARRANTZIA dauka arazo honen konponketak. Alde batetik Mutrikuko joan-etorritako garraio publiko modu bakarra autobusa daukagutako, bestetik garraio publikoa erabiltzeak duen garrantziagatik, eta azkenik, erabiltzaileekiko begiruneagatik.

ESKARI hau egiten diogu Lurraldebusi: Ondo konbinatzea tren eta autobusak Deban. Trena delako Donostia-Mutriku eta Mutriku-Donostiarako gure garraio nagusia. Inor ez utzi Deban!

Herritar guztion onerako dela uste degutako, kezka honekin bat egiten dugunok eta egiten den eskariari atxikimendua adierazteko, sinadura orri bat atera dugu; bertan gure izenak idatzi eta herritarron adostasuna ikusgarri jartzeko aukera izango da. Hasteko Atxikimendurako orriak hiru leku hauetan daude: Alboka kafetegia, Agerretxo zapatadenda eta Anaiarte taberna. ANIMATU!

Adostasunak jasotzeko orriarekin lagundu nahi? Esaguzu 679 08 97 14 telefonora deituta.

Zintzilik gelditutako herritar batzuk

840 SINADURA BATU DIRA!

Hileroko gutxieneko pentsioa 1.134 €koa izan dadin, sinadura bilketarekin hasi ginen urtarilaren bukaera.

Apirilaren erdi aldera bukaera eman diogu langintza horri eta emaitza oso emankorra izan da, 840 sinadura bilduta.

Esan genuen bezala, Mutrikun 1.500 pentsiodun inguru gaude, eta hauetatik, 600 inguru gutxieneko horretara ez da iristen. Horietatik 400 emakumeak dira eta arrakala handia da genero ikuspuntutik.

Ia hiru hilabetetan, han eta hemen, jendea prest agertu da mahaia jarri eta sinadurak biltzeko. Emaitza oso ona izan da eta poztekoa gainera, baina kontuan hartu behar dugu, ziurrenik, oraindik bide luzea geratzen zaigula.

Orain hurbilean, Legebiltzarrerara bideratuko dira Autonomia Elkartean batu diren sinadura guztiak eta hor emango diren elkarrizketa eta eztabaiden ondoren, ikusiko da eskaerak argia ikusiko duen.

Dena dela, hor egongo gara prest tamaina horretako injustizia gainditu dadin, eta uste dugu gaur edo bihar guztion indarrak batuz lortuko dugula.

Bukatzeko, eskerrik beroenak luzatu nahi dizkizuegu sinatzera hurbildu zaretenoi, eta, baita, modu batez edo bestez, mahai inguruan laguntzen egon zareten guztioi ere.

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugikendua - Mutriku

Kalaputxi aldizkariak irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Gutunak izen abizenekin bidaltzeko dira posta arruntez edo posta elektronikoz aldizkaria@kalaputxi.eus helbidera. Aldizkariak ez du zertan bere egin idatzien edukia.

GOI-MAILA:

Bioteknologia - Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
Administrazioa eta finantzak
Web aplikazioen garapena
Automatizazioa eta robotika industriala
Mekatronika industriala
Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa
Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

ERDI-MAILA:

Mantentze-lan elektromekanikoa
Beroa sortzeko instalazioak
Instalazio elektriko eta automatikoetako teknikaria
Elikagaiak elaboratzeko teknikaria
Soldadura eta galdaragintza
Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta

ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA:

Zibersegurtasuna eragiketa-teknologiaren inguruneetan

Aforo mugatuak. EMAN IZENAI
94 616 90 02 info@leartik.eus

LHEZIKETA
Ate irekiak
MAIATZAK 8
Aurrematrikula
MAIATZAK 5-23

leartik.eus



lea artibai
ikastetxea
MARKINA-XEMEIN



maiatzaren 15etik 25era



Orri hauen bitartez, zeu ere, irakurle, Euskaraldian parte hartzera animatu nahi zaitugu, Belarriprest edo Ahobizi izanda!

Euskaraldia ariketa sozial bat da, euskararen erabilera biderkatzea helburu duena. Hizkuntza ohiturak aldatzea du xede, euskararen erabilera hauspotu eta indartuz. Horretarako, gakoa da gutako bakoitzaren parte hartzea. Izan ere, euskaraz hitz eginez, batak bestea mugitu egiten du, eta besteak bata, hizkuntza inertziak eraldatuz.

Gogoan izan...

Belarriprest bazara, aldiro erabakiko duzu euskaraz noiz eta norekin egin. Agian ez duzu beti euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakite-nei zuri euskaraz hitz egiteko eskatuko diezu.

Ahobizi rola aukeratzen baduzu, berriz, euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo duzu uneoro. Aurrean duzunak euskaraz ulertzen ote duen ez dakizunean lehen hitzak, beti, euskaraz egingo dituzu; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraituko duzu. Eta, zaila iruditzen arren, aurrean dugunak ulertu bai baina euskaraz hitz egiten ez duenean ere euskarari eutsiko diogu (elkarrizketa elebidunak mantenduz).

Animatu eta eman izena!

Milaka eta milaka pertsonak batera eginda, efektu biderkatzailea lortuko dugu!

Elkar mugituz egingo dugu!



ARRIETA
AUTOZERBITZUA



Aliprox

J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

APALLU
ITURGINTZA

Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku

apallu@apallu.es

www.apallu.es

<https://euskaraldia.eus/>


Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean, lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut.

Aldiro erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet modu esplizituan.



ZER DA EUSKARALDIA?

Nahi edo ahal beste hitz egiten al duzu euskaraz?

Euskaraldia hizkuntza ohiturak euskarara gehiago ekar ditzazun lagunduko dizun ariketa praktikoa da.

Hau da, **euskara gehiago, gehiagotan eta jende gehiagorekin egiteko elkarrekin egiten dugun ariketa sozial erraldoia.**

NORK PARTE HAR DEZAKE?

Euskaraz ulertzen duten 16 urtetik gorako herritarrek.



NOIZ EGINGO DUGU?

Gaur bertan has zaitezke praktikatzen, baina, Euskaraldia ariketa maiatzaren 15etik 25era izango da, 11 egunez.

NOLA EGINGO DUGU?

Denok batera!
Ahobizi edo Belarriprest txapa jantzita.
Txapak aurrean dugunari mezu argia helaraziko dio:
nirekin egizu euskaraz lasai!

1. LEHEN HITZA EUSKARAZ EGITEA

Ezagutzen ez duzun horri galdera bat egin nahi dionuzenean, edo denda edo taberna batera zoazenean, **zein hizkuntza erabiltzen duzu lehen eskaera hori egiteko?** Pentsatu gabe egiten dugunean, askotan, erdarara jotzen dugu.

Bada, lehen hitza euskaraz egiteko ohitura hartuta sorpresa on asko jasoko ditugu eta euskarari bide asko zabalduko dizkiogu, ziur!

2. ERDARAZ ERANTZUNDA ERE... EUTSI EUSKARARI!

Euskara ulertzen duen horrekin, zergatik ez euskaraz hitz egin? **Berak erdaraz erantzuten badizu ere, ulertzen duen bitartean, jarrai dezakezu zuk euskaraz hitz egiten.** Elkar ulertzea da helburua, ezta? Hori ere ohitura kontua baino ez da!

Beraz, esaiozu euskaraz ulertzen duen lagun horri, Euskaraldiak irauten duen 11 egun horietan behintzat, zuk euskaraz egingo diozula.

**ETA ZUK EGIN ALA EZ, ESKATU ZURI EUSKARAZ EGIN DIEZAZUTEN!
NIREKIN BETI EUSKARAZ!**

MUTRIKUKO HAMAIIKAKOAREN AURKEZPENA
apirilaren 30ean, Beheko plazan
musika, dantza, kantuak eta gehiago!

BERISTAIN

estankoa eta paperdenda

Barrenkale, z/g
943 60 35 44

ELORRETA

ERAIKETAK • ERREFORMAK • IGELTSERITZA

Asier Lersundi 680 579 961
Kepa Martinez 617 842 004

San Agustin, 4B
MUTRIKU

Tel./Faxa 943 60 43 97
elorrtaeraiketak@gmail.com

RECYSMART PROIEKTUAREN OTSAILEKO EMAITZAK

Mutrikuko Udalak eta Debabarrenako Mankomunitateak lankidetzan eza-rritako proiektuak honako datuak utzi dizkigu otsailean: 120 erabiltzailek guztira 65 kilogramo birziklatu dituzte. Ondorioz, 387 litro ur eta 116 kilo-gramo CO² aurreztu dira, 6 zuhaitzek xurgatzen dutenaren baliokidea.

Puntuazioari dagokionez, guztira 39 erabiltzaile sartu dira zozketan, eta saridunak honako hauek izan dira otsailean: Aitziber Esnaola 98 punturekin eta Leire Egaña 44 punturekin. Saridun bakoitzari Mutrikuko produktuz osatutako saskia egokitu zaio.

Antolatzaileek parte-hartzaile guztiei eskerrak eman eta horretan jarraitzera animatu nahi ditu.



IKASKETA BIDAIAREN ALDE

Institutuko DBHko 3. mailako ikasleek ikasbidaia egiten dute ikasturte bukaeran. Aurten ere bai. Bidaia hori egiteko behar duten dirua lortzeko hainbat ekintza burutzen dute ikasleek urtean zehar: zozketak, merkatu txikian salpostuak, moda-desfilea...

Aurten, gazteen artean purixan dagoen zesta puntari helduta, jaialdi berezia antolatu dute apirilaren 25erako, ostiralarekin, Miruaitz pilotalekuan. Bertan, DBHko ikasleak eta beren hurbileko beste gazteak izango dira protagonista: zestalariak. Mutil gazteen, neska gazteen, 22 urte azpikoen eta nagusien arteko partida ederrak ikusi ahal izango dira sarrerak balioko duen 6 euroren truke. Partiden bukaeran, Manci eta Eñaut pilotari gazteen kamisetan zozketa egingo da, eta herriko produktuz osatutako otarra eder batena ere bai.



ERRIGORAREN BIDALKETAK KALAPUTXIN

Urteroko udaberriko hitzorduari lotuta, maiatzaren 7an, asteazkena, arratsaldeko 6etatik 8ak arte Errigoraren **Nafar hegoaldeko uztu eskutik eskura** kanpainan egindako erosketak jasotzeko aukera izango da, Kalaputxiren lokalean, Barrenkalen, Luardo etxeko sotoan. Erosketa egin zutenak saia daitezela egun horretan etortzen edo, ezin badute, norbait bidaltzen bere erosketa jasotzera. Norbaitek halakorik egin ezin izango balu, mesedez, jar dadila gurekin harremanetan mezu bat idatzita helbide honetara: aldizkaria@kalaputxi.eus.

Nafarroa hegoaldeak propio dituen produktuak Euskal Herriko plazan kokatuta administrazio nafarrak «ez euskaldun» izendatutako zonaldean euskararen sustapena helburu eta auzolana lan-tresna nagusi hartuta, ia 1.000 eskari bideratu dira aurtengoan. Bejondaiela Nafarroa hegoaldeko euskalzaleei!

erriGora

INOIZKO PRODUKTU GEHIEN BANATUKO DUGU!

10.700 eskaera 145.500 litro olio 30.700 lote



EUSKARA · ELIKADURA BURUJABETZA · AUZOLANA

NEKAZARITZAKO IBILGAILUEN AZTERKETA TEKNIKOAK

Bergarako ITA ASUA SL enpresak nekazaritzan erabiltzen diren ibilgailuentzako azterketa teknikoak, ITV izenez ezagunagoa burutuko du maiatzaren 9an, goizeko 9etan hasita, Mijoa industrialdean.

Honako azterketa-puntuak begiratuko dira: Identifikazioa, kanpo-egokitzapena, karrozeria eta txasisa, barne-egokitzapena, argiak eta seinalizazioa, balaztak, direkzioa, ardatzak, gurpilak, pneumatikoak, esekidura, motorra eta transmisioa. Horiekin batera, baimendu gabeko berrikuntzak ere aztertuko dira.

Ibilgailuarekin batera, honakoak ere eraman eta aurkeztu beharko dira: Zirkulazio-baimena, azterketa teknikoaren txartela eta aseguruaren ordainagiria.



ESKERRIK ASKO, MUTRIKU!

Martxoko azken astean, Debabarrena eskualdeko gainerako herriein batera, Mutriku ere Debabarreneko elkartasun erronkaren baitan antolatutako janari bilteta solidarioan parte hartu zuen. Herri bakoitzak jaki mota bat biltzeko aukera izan zuen eta gure kasuan, arrain kontserbak tokatu zitzaizkigun. Apirilaren 1ean, jasotako guztiaren aurkezpen ofiziala egin zuten eta zenbakiak ikaragarriak izan dira: eskualde osoan 12.000 kilo janari bildu dira!

Zaporeak gobernuz kanpoko erakundeak Lesbosen errefuxiatuentzako janaria prestatu eta banatzen du. Tamalez, egoerak ez duenez onera egiten, lanean jarraitu beharko dute, bertan janariak prestatzen eta hemendik bidaltzen. Hori dela eta, Zaporeak taldeak eskerrak eman nahi dio Mutriku herriari: familiei, baita herriko denda, enpresa eta eskolei ere, aparteko ahalegina egin baitute kanpaina hau arrakastatsua izan zedin.

Behar dutenei laguntzeko Lesbosera bidaiatu beharrik ez dagoen adibidea haxe da. Horrelako ekintzek erakusten dute hemendik ere laguntza eta itxaropena eskaini diezaiekegula zaurgarritasun egoeran daudenei.

Beste behin ere, mila esker, Mutriku!



ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

Martxan da 2024 urtean izandako diru-irabaziak ogasunarekin berdintzeko sasoia. Zenbakiak eta zenbakiak, batzuk alde eta beste batzuk kontra. Beltz eta gorri. Kontuak kontu, aitorpena aurkezteko orduan hizkuntza bat ala beste bat aukera daiteke, euskara ala gaztelera. Horrelakoetan garrantzitsuenak zenbakiak direla pentsatu arren, aitorpena euskaraz zenbat eta herritar gehiagok aurkeztu, Foru Aldundiak eta beste erakundeek hurrengoetan euskaraz bizi den komunitatea gero eta zabalagoa dela kontuan hartuko dute. Iaz, mutrikuarrok aurkeztu genituen 2.902 aitorpenetatik 1.095 aurkeztu ziren euskaraz, guztien %38. Aurtengoan, kopuru hori haundituko dugu? Aitorpena euskaraz aurkeztu dezagun!



EZ DADILA HARIA ETEN

Bi edo hiru, agian lau, baina ez dadila haria eten. Goizeko Izarra Ikastolan inauteriei agur esan eta herriko kantuei egin diete harrera. Eguneroko jarduerekin jarraitzeaz gain, Aste Santuko oporrak bitarte ikasleei euskararen eta kulturaren inguruko beste erronka bat proposatu zaie. Inauterietan, Pikomelatosi kantatzen zaion kantua ikastea izan zen erronka: *Ke la ke la ke si, ke la ke la ke no...* Oraingoan, aldiz, apirilaren hamaikarako ikasle guztiek mutrikuar jatorriko bi abesti landu eta ikasi dituzte. Jarduera horren helburua, ikasleei euskal kultur transmisioa bermatzea. Herrian ezagunak diren baina, beharbada, gure ikasleentzat ezezagunak diren abestiekin gozatzea eta abestea. Lehenengo abestia, Itoiz taldearen *Lau Teilatu* aukeratu da. Hirurogeita hamar eta laurogeiko hamarkadetan Euskal Herri osoan famatua egin zen talde mutrikuarra. Duela gutxi «Itoiz udako sesioak» dokumentala herrian ikusteko aukera izan dugu, eta jarduera horri keinua eginez abestia lantzea erabaki zen. Bigarren abestia, berriz, herrikoiagoa da: *Hiru aeroplano*. Hau ere, herrian aspaldidanik kantatua. Arrantzaleei eta eskabetxerei jasotako abesti hori hainbat diskotan topatu dezakegu; batetik, 2009an argitaratutako *Kantu Zaharrak Mutriku*n deritzon diskoan eta, bestetik, Delirium Tremens taldeak 1990ean argitaratutako *Hiru aeroplano* diskoan. Azken abesti horrek eztabaida pizten du. Batetik, kopuruari dagokionez bi edo hiru aeroplano zehazterakoan, eta, bestetik, kantua jatorria. Adinduei aurrez entzundakoan oinarrituz eta diskoetan jasota dagoena kontuan hartuz *Hiru aeroplano* abestu da, azken finean, herriko kultura eta usadioekin jarraitzea baita asmoa.



ANAIARTE MAIATZEAN ERE MARTXAN

Udaberrian sartuta gaudela, Mutrikuko jubilatuen eta pentsiodunen Anaiarte elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu bere bazkideentzat. Irteerarako izena eman beharko da, eta beste ekitaldietara, berriz, gogoz beteta agertu eta parte hartu.

- Maiatzaren 8an Balmaseda Pozalagua irteera.
- Maiatzaren 15ean Olatza mendi irteera, goizeko 9:00etan.
- Maiatzaren 16an Eibar eta Mutrikuko jubilatuen abesbatzen topaketa, Konbentuan, arratsaldeko 6:00etan.
- Maiatzaren 17an Kantujira, Beheko plazan hasita 12:30etan.

Elkarteak antolatutako ekintzak bazkideei begirakoak izaten badira ere, horietan parte hartzea irekita dago herritar guztientzat, hortaz, animatu herritar guztiok eta hartu parte horietan Anaiartekideekin batera.



ERAKUSKETA

Maiatzaren 9tik 18ra Peio Ulazia artista mutrikuarraren «Kartoia, papera, guraizeak» erakusketa izango da ikusgai Zabiela Kultur etxean. Hilaren 9an, arratsaldeko 6:30etan egilearekin bisita gidatua gozatzeko aukera izango da, erakusketakoen inguruko azalpen egokiak jasotzeko. Hasierako bisita azken egunean ere eskainiko da eguerdiko 12:00etan.

Erakusketa bisitatzeko ordutegia honakoa izango da: astelehenetik ostiralera, 18:00-20:00; larunbatean eta igandean, 12:00-14:00.

ERAKUSKETA

Mutrikuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuan *Adierazpen Artistikoa* ikasgaia burutzen ari diren ikasleek hainbat lan egin dituzte ikasturtean zehar maila teorikoa maila praktikora eramateko. Egindako lan horiek Institutuko ormen artean gelditu gabe, herritar guztiei erakutsi nahi izan dizkiete, eta, horretarako, erakusketa antolatu dute Zabiela Kultur etxean, maiatzaren 19an hasi eta 25era arte. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 17:00-19:00; larunbatean, 12:00-14:00 eta 17:00-19:00; igandean, 12:00-14:00.

EUSKAL EZKONTZA

Maiatzaren 31rako euskal ezkontza haundia dago iragarrita, Gure Ametsa Dantza Taldeak antolatuta. Familietako kideez gain, herritar guztiak gobidatuta daudenez, gonbidatuen zerrenda asko luzatzea espero da. Hori dela eta, ezkontzako bazkarian parte nahi dutenei aurrez izena emateko eskatzen zaie, antolakuntza errazteko asmoarekin. Hilaren 30era arte eman ahal izango da izena, buruko 30 euro ordainduta, Apartak ilea-apaindegian eta Aparra dendan. Arropak, zapiak eta abarketak ere, hasi prestatzen!

EUSKADIKO TXAPELDUN ARRAUNEAN

Gogoan hartzeko moduko denboraldi bati bukaera ezin hobea eman diote Mutriku Arraun Taldeko neska arraunlariak. Duela urte batzuk hasitako lanak aurtun fruituak eman ditu ugari. Eskola kiroleko saio haietan hasita, Udaletxeko balkoian bandera astintzeraino ailegatzearren lortu dute.

Txapelketarako antolatu dituzten taldeek maila ona erakutsi dute probintziako uretan, eta infantil mailako neskek maila on horren gorentasuna lortu dute Gipuzkoako Liga, Gipuzkoako Txapelketa eta, denboraldia amaitzeko, Euskadiko Txapelketa irabazita. Apirilaren 26an eta 27an Castro Urdialesen jokatu den Espainiako Txapelketan ere parte hartuko dute, Kantauri kostaldeko herrietako beste batekin indarrak neurtzeko.

Taldeak maila bikaina izan bada, bakarka erakutsitakoa ere ez da makala izan. Izan ere, Gipuzkoako Ergometro Txapelketan 10 arraunlari onenetan 6 mutrikuarrak izan dira, Garazi Flores eta Iraia Ituarte lehenengo eta bigarren postuak lortuta. Espainiako Txapelketan ere, maila ona erakutsita, lehen postutik dezima batera gelditu zen Garazi.

Zorionak, neskak, osatu duzuen adin askotako taldearekin gure herriaren izena gure kostaldean han-hemen zabaltzearen!



RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Zerua eta infernua

Bestien bizitzeta hainbat erakusleihotatik begira bizi gean gizarte hontan, etengabe ari gea geure burua gainontzekuakin konparatzen, bizimodu ideal (eta ez erreal) bat irudikatzen. Ohitxura horrek noa eruango gaitxun ikusi gabe.

Film hontan arrakasta handiko negozio gizon bat ezagutuko degu, dilema moral haundi bat jartzen dixuenian. Inguruko eta bere baitxako kontraesanen artian, erabaki zuzenak hartzen saiatuko da, detektibe-trama sakon batian sartuta.

Pertsonok gauza ederrak etxeko kapaz gea geure sentimenduak bultzatuta. Baiña, sentimendu horrek illunak dianian, gaitxasun hori arrisku bihurtzen da. Gainontzeko jendiantzat, eta geure buruantzat.

*«Nahixo det egixa krudela entzun,
gizur goxua siñistu baiño»*



FITXA TEKNIKOA

Izenburua: Tengoku to Jigoku **Urtea:** 1963

Zuzendaritza: Akira Kurosawa

Gidoia: Hideo Oguni, Ryuzo Kikushima, Eijiro Hisaito, Akira Kurosawa

Aktoreak: Toshirô Mifune, Kyôko Kagawa, Yutaka Sada, Takashi Shimura, Tatsuya Mihashi

Iraupena: 2 h 23 min

La sombra del viento

Carlos Ruiz Zafón



1945, Bartzelona. Aita batek semea hiriko toki sekretu batera eraman du: Liburu Ahaztuen Hilerrira. Bertan, eginkizun bat emango dio aita semeari: dauden liburu guztien artean bat aukeratu eta, edozer dela ere, betiko zaindu beharko du aukeratutako liburua. Mutikoak, Daniel izenekoa, «La Sombra del Viento» liburua aukeratuko du, Julián Carax izeneko autore misteriotso batena.

2001ean argitaratutako eleberri honetan, Daniel Sempere protagonistak XX. mendearen lehen zatian zehar bizi izandako gertakariak kontatzen ditu, betiere «La Sombra del Viento» liburuak lotzen dituen hariei jarraituta. Hainbat dira gai nagusiaren azpian jorratzen direnak: laguntasuna, maitasuna eta familia-harremanak, gerra osteko gizartearen egoera eta klase sozialak, aberastasuna eta haren dekadentzia... Suspentsez beteriko istorio honetan, protagonistaz gain, pisu handia hartuko dute bigarren mailako pertsonaiek ere,

eta horiek ezinbestekoak izango dira irakurlea eleberrira katigatuta mantenduko duten gertaeren kontakizunetan; esaterako, Danielek lagun egingo duen Fermin behar-beharrezkoa izango da hain enigmatikoa den historia argitzeko.

Daniel Semperek honako galdera hauei erantzun nahian hasiko du bere ibilbidea: nor da Julián Carax? Zer gertatzen da haren liburuekin? Ez du jakingo, baina, erantzunak ez direla hain soilak, eta bidea, hasiera batean sinplea zirudiena, ezustekoz beteriko bidezidorez josia dagoela konturatuko da.

«—Los libros son espejos: sólo se ve en ellos lo que uno ya lleva dentro —replicó Julián.»

Carlos Ruiz Zafón, La sombra del viento

OBEGO: Jon, Unai, Eritz eta Unax

Txaloak bukatu arte

Azken hilabeteen «Itoiz Udako sesioak» euskal talde ikonikoaren luzemetraiaren protagonista izan direla eta entzunago egin badira ere, mutrikuar talde honek badu zer esana musikaren inguruan, izaera handiko eta estilo ezberdinez osatutako diskoarekin baitatorkigu.

Lau mutrikuar gaztek osatzen dute OBEGO taldea: Jon Galarraga (ahotsa, gitarra), Unax Urkiri (bateria), Eritz Urkiri (baxua, ahotsa) eta Unai Fernandez (gitarra, ahotsa). Gizarte indibidualista eta «ni»-aren zurrumbilo honetatik at musikarekin eta musika sortuz gozatzea da beraien leloa. Lehen diskoaren aurkezpen ofizialik egin ez badute ere, 2024an kaleratu zuten Ecce Homo izeneko diskoa. Estilo eta mezu ezberdinez eraikitako lehen lana dela esan genezake. Horren adibide dugu Txaloak bukatu arte kantua: «urrezko arraultzak jartzen duten izarren antzera», ibilbide hori inoren hautua izan ez dadin mezua zabaltzen duen kantu ederra. Hain zuzen, aurretik izen berarekin plazaratu zuten singlea.

Nortzuek osatzen duzue taldea eta nola elkartu zineten?

Unai: Orain dela lau bat urte hasi ginen, pandemia garaian etxeratuta egon ginenean. Metal musika entzuten hasi nintzen, eta une hartan gitarra jotzen ikasi nahi nuen. Jon Galagarrari esan eta, bata bestearen etxera joaten hasi ginen. Halako batean, talde bat sortzea okurritu zitzaigun, hasieran erdi txantxetan, baina ez genuen imajinatzen honaino helduko ginenik. Ondoren, Eritz baxu-jolea, eta beranduago bere anaia Unax elkartu zitzaizkigun; azken hori bateria-jolea. Horrela osatu genuen laukotea: Jon Galarraga ahotsean eta gitarrarekin, Unax baterian, Eritz baxuarekin eta ahotsean, Unai Fernandez gitarrarekin eta ahotsean. Momentuz oso gustura gaude eta jarraitzea da gure nahia.

Nondik datorkio Obego izena taldeari?

Unax: Ni taldera batu orduko taldeak bazuen izena, alegia, *Casus Belli*. Unai eta Jon elkartu ziren momentuan pentsatu zuten. Jon latina ikasten ari zen momentuan. Baina, taldea forma hartzen hasi zen eta, gure kantuak jotzeko erabakia hartu genuenean, nolabait gure izaera erakutsi nahian taldearentzat izen berri bat pentsatzen hasi ginen. Eta, hor bota nuen Obego izena. Etimologikoki «Ob» latinezko aurrizkiak «aurka» adierazi

nahi du, eta «Ego»-k «ni»a, ondoren psikologia eta filosofia esanahian sakondu badute ere. Ahoskatzerakoan gustuko genuen eta, gainera, izen motza nahi genuenez, hitz sinplea, ba aurrera egin genuen Obego izenarekin. Era berean, taldearen izaera ongi adierazten du. Gizarte indibidualista honetan, askotan hobe da albo batera «ni»-a lagatzea «Gu» izateko, elkarrekin borrokatzeko. Danok gara izaki sozialak, erro beretik gatzoz eta esentzian, momentu eta leku historiko baten produktuak besterik ez gara. Hori guztia islatzen du taldearen izenak, edo hori nahiko genuke behintzat, nahiz eta badakigun askok «hobeago»-tik eratorria dela pentsatzen duten. Aipatu, baita ere, taldearen izena urte bete eskas aldatu genuela, hain zuzen ere Axular Arizmendirekin grabaketa lanak hasi eta diskoa kaleratzekotan ginenean.


Zein estilo duzue gogoko?

Unai: Zaila da taldearen musika estiloa zehaztea, kantu batetik bestera alde nabarmena baitago. Horrez gain, taldekide bakoitzak bere estiloa du, eta entzuten dugun musika ere oso ezberdina da. Nik momentuan post-rocka entzuten dut, eta baita reggae ere. Eta, gogoko ditudan taldeen artean Radiohead, Bob Marley, Itoiz, King Gizzard eta Godspeed You! bezalako taldeak daude.

Jon: My Chemical Romance taldeari esker hasi nintzen gitarra jotzen eta kantuak idaztean nabarmen nabaritzen dut haren eragina. Bestalde, egun Elliott Smith da gehien entzuten dudana abeslaria, akustikoa eta lasaia.

Eritz: Musika aspektu kritiko batetik entzutera eta aztertzea bideratzen dut neure burua. Euskal Herriko musika taldeak entzuteko eta jarraitzeko apustua egiten dut, eta gu bezala hasi berriak diren taldeak entzuten ditut. Baina talderen bat aipatu beharko banu Berri Txarrak edota Kashbad aipatuko nituzke, eta herriko talde erreferente gisa Saia Goait, noski.

Unax: Gutxi dira gogoko ez ditudan estiloak, denetik probatzen joatea gustuko dut; hala ere, gustuko edo entzunenak Screamo-a edota Post-hardcore-a direla esango nuke, eta orain momentuan gehien eragiten



Camping
Galdona
JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria
Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

eguneko menua
daukagu

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
RPS 183/12 optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

nauen taldea Lisabö. Hala ere, anaiak aipatu bezala, eszena ofizialetik kanpo diharduten taldeak jarraitzeko eta entzuteko hautua egiten dut gehienbat.

Taldeko nork idazten ditu kantuak eta musika? Nola adosten duzue?

Jon: Kantuak neuk idazten ditut gehienbat, Unax ere nahiko poetikoa dela esango nuke, baina, berak aipatu bezala kantuei forma neuk ematen diet. Eta bai, «Txaloak bukatu arte» kantuaren letra neuk sortu nuen. Askotan guk maite ditugun artistak nola bukatzen duten erakutsi nahi nuen. Nirvanaren ukitu bat badu kantuak, Kurt Cobain eta 27ko kluba, hau da, hogeita zazpi urterekin bere buruaz beste egin duten artistekin pentsatzen idatzi nituen letra horiek. Berezi Kurt Cobain eta Jim Morrison aipatzen ditut, eta kantuarekin entzuleak abisatu nahi ditut. Hala ere, kantuak egiteko prozesu horretan beti hasten naiz melodia edo musikaren. Ondoren, hitzak botatzen ditut, eta esaldiak lotzen joaten naiz. Hori bai, kantu guztien atzean mezu bat dago: Denbora galtzea. Egun batean esnatu eta norberaren buruari galdetzea: Nola heldu naiz hona? Nora joan da denbora? Albumaren atzean beldur hori dagoela esango nuke.

Ecce Homo izeneko diskan zer aurkituko du, beraz, entzuleak?

Eritz: Gure lehen diskoa da hau eta, aipatu bezala, Axular Arizmendirekin grabatu genuen. Aipatu behar da asko ikasi genuela berarekin eta aholkuak ere jaso genituela. Alde batetik, diskoa kaleratu baino lehen aurrerapen bat ateratzea gomendatu zigun, entzuleak gure musika ezagutzeko asmoz.

Jon: Abenduaren 31n gaueko hamabiak puntuan atera genuen singlea, urtearen hasierarekin batera.

Eritz: Uda hasiera aldera grabatu genituen gure kantuak, eta amaierako produktua irailerako prest genuen. Horretarako, diru bilketa egiteko Crowdfunding kanpaina jarri genuen martxan eta kamisetak, sudaderak, CDak eta biniloak atera genituen.

Jon: Lehen idatzi genuen kantua «Koloretako argiak» izan zen. Kantuak hiru urte ditu eta hasierako emanaldietatik ari gara jotzen. Punk eragin handiena duen kantua dela esango nuke, eta, gainera, gaur egun gehien entzuten den kantua dela ere esango nuke. Aipatu, baita, gure hasierako kantuek rock estandarragoa ukitzen dutela; laugarren kantuak, aldiz, metala; bosgarrena zazpi minutuko kantua da; seigarrenarekin taldearen esperimentazioa nabari da; zera esan nahi dut: zaila da diskoa musika estilo batean kokatzea. Kantu bakoitza mundu txiki bat da.

Zuen ibilbidean hamaika bat kontzertu emango zenituzten... Zeintzuk dituzue gogoan?

Unax: Diskoaren aurkezpena oraindik ez dugu egin, baina kontzertuak emango ditugu. Eibarren eman behar genuen kontzertua bertan behera gelditu zen, baina baditugu aurrera begirako ekintzak.



Unai: Eman genuen lehen kontzertuan esan beharra daukat oso urduri jarri nintzela, eta hasi baino zerbait lehenago pasiera bat ematera joan nintzen lasaitzeko. Ni, zerbait lasaitu nintzen, baina urduritu zirenak taldekideak izan ziren pentsatuz alde egin nuela. Hamabost urte besterik ez nituen orduan...

Ezin dugu bukatu aipatu gabe: «Itoiz Udako sesioak» euskal talde ikonikoaren luzemetraiairen protagonista izan zaretela. Nola bizi izan duzue hori guztia?

Jon: Nire osaba, Antton Fernandez, Itoiz taldeko teklatura izan zen urte askoan eta ustekabeen bere dei bat jaso nuen esanez Itoiz dokumentalerako casting-era joateko; animatzeko alegia. Eta bi bider pentsatu gabe aurkeztu ginen. Lehendabiziko saioan «Lau Teilatu» jotzeko eskatu ziguten. Ondoren, Deban izan ginen, eta jarraian email bat jaso genuen adieraziz onartuak izan ginela. Orokorrean esperientzia polita izan da, izan ere, Juan Carlos Perezekin pasatu ditugun momentuak ederrak izan dira. Mutrikuko Rock kolektiboaren lokalean Indar Trabes taldearen kantuak jotzen irakatsi zigun. Eta, dokumentaleko kantuak grabatzen ere jardun genuen. Axularren estudioan ere momentu ederrak pasatu genituen. Kanturen bat aukeratzekotan «Goizeko deiadar» aukeratzeko gabe.

Indar Trabes taldearen kantu bat edo beste ere jo zenuten filmaren aurkezpenaren egunean...

Unai: Bai, hala da. Gure kantu bat ere jo genuen. Bertan, musika munduko jende ezaguna ikustea eta Itoiz taldeko guztiekin egotea itzela izan zen. Gorka Urbizuri gure diskoa ematea ere lortu nuen!



aparra
ZURETZAKO MODA
www.aparramoda.com
Erdiko Kale 29 20830 Mutriku Tlf. 943 604 594 645 033 561

MUTRIKUKO TANATORIOA

Iriagirre z/g

Albia
EHORZKETA ZERBITZUAK

Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

ZAPATARI IKASLEAK

GUREAN

Aurreko batean azaldu genuen bezala, kalapetatzen ikasteko ez zen teoria askorik behar izaten. Trintxa, iztupa eta mazeta eskuetan hartu, eta kalapetero maisuen aldamenean lan egitea bezalakorik ez zegoen. Zapatari trebea izateko ere, teoria baino gehiago, praktika izaten zen garrantzitsuen. 11 eta 18 urte bitarteko gazteak animatzen ziren ofizioa ikastera. Zer ikusi, hura ikasi.

Mutrikuko zapatari batzuek familiakoei irakasten zizkieten lanbidearen gorabeherak eta sekretuak. Beste ofizio askotan bezala, etxeko mutikoa aita, anaia edo osabarekin trebatzen zen zapatagintzan. Urteak behar izaten ziren larrua txukun on-tzen eta moztzen ikasteko, urteak larru harekin oinetakoak behar bezala egiten ikasteko, urteak moldeak, txantiloak eta orkoiak egiten ikasteko.

Dena dela, batzuetan familiakoen ogibideari segida eman beharrean gazte batzuek (edo euren familiek) beste lanbideren bat aukeratzen zuten. Halakoetan, ohiko praktika izaten zen zapatari-maisu batengana joatea eta urteak ematea bere ondoanlaguntzaile lanetan, harik eta ofizioa ondo ikasi arte.

Ikasleak edo aprendizak zeuden zapatagintzaren beheengo mailan, gero ofizialak, eta, azkenik, lanbidea ondoen ezagutzen zutenak: zapatari maisuak.

1539ko otsailaren 16an Mutrikuko Juan eta Domingo de Olaçarraga aita-semeak San Juan de Herlaete zapatari debarra-ekin elkartu ziren. Adostu zuten Domingo gazteak bost urtez lagunduko ziola Herlaeteri, eta zapatari lanbidea ikasiko zuela, *tomo por grado de aprendiz*. Tarte horretan zapatari-maisuaren etxean biziko zen eta beharko zituen jan-edanak, arropa eta oinetakoak emango zizkion; “praktikaldia” amaitutakoan, jaka eta galtza batzuk jasoko zituen gazte mutrikuarrak. Horrelako kontratuak erakusten dute emandako hitza zorrotz bete behar zela, izan ere bost urte haietan ikasleak zapatari maisuaren aldamenetik alde eginez gero, berriro ere bost urtez (oso-osorik) jardun beharko zuen laguntzaile.

Beste batzuetan, kanpotik etorritako gazteak hartzen zituzten Mutrikuko zapatariek lanbidea irakasteko. 1612an, esaterako, Joan de Arechua zapatariak, *maeste çapatero*, hitzarmena egin zuen Bernabe de Cortabitarte aulestiarrekin. 17 urte zituen Bernabek, eta baldintzak adosteko 24 urteko Joan anaiarekin hurbildu zen Mutrikura. Arechuak hiru urtez hartuko zuen Bernabe gaztea lanbidea ikas zezan, *por mozo aprendiz*. Maisuak jan-edanak emango zizkion, eta hitzartutako epea pasatu-takoan, *de salario y sueldo por todo el dicho tiempo*, 8 dukat eta zapatari lanerako erremintak emango zizkion, *y mas asta el valor de 8 reales de erramienta del dho su ofiçio*.

Martin de Arizcun baztandarra (Nafarroa), 1632. urteko azarotik behintzat, Mutrikun bizi zen. Handik urtebetera bere zerbitzari edo morroi bat agertzen da, eskritura batean, lekuko gisa: *Pedro de Aguirre criado de Martin de Arizcun çapatero residente en la dicha villa*. 1634ko irailaren 1ean Arizcun zapatariak (*maestre y ofiçial de entretenir el calçado*) hitzarmena egin zuen urte eta erdirako Pedro de Aguirrerekin, *su criado ayu-dante en el dicho ofiçio*. Ohi bezala, jaten eta edaten emango



Zapatariak lanean.

zation, *dandosele de comer y el sustento neçessario*. Maisuak ordainetan emango zizkion jantziak ere zehazten ditu kontra-tuak: bere gustuko jantzi bat, *un bestido de la suerte que el quisiere hazer*, eta bi alkandora, *dos camisas de lienço hordinario desta tierra o de Françia*; larruzko praka batzuk ere jasoko zituen laguntzaileak, *y mas unos calçones de badana*.

Larru mota bat izendatzen du gaztelaniazko “badana” hitzak, eta arkume, ardi edo aharien larrutik ateratzen da. Gauza jakina da zapatariek larruzko galtza sendoak erabiltzen dituztela lanerako. Jipoitzea edo astintzea esanahia duen esapide bat erabiltzen da erdaraz: *zurrar la badana*. Joan den hilabeteen, zurrategien berri eman genuenean, larrua ontzeko (*zurrar, curtir, adobar*) prozesua azaldu genuen. Esapide horren oinarrian larrua kolpatzea edo jotzea dago.

1674ko maiatzaren 30ean Jacinto de Pagoaga zapatari maisu mutrikuarrak ofizioa ikasteko Etxebarriko (Bizkaia) Pedro de Escutusolo gaztea hartu zuen hiru urterako, *en su ofiçio de çapatero por aprendiz*. Pagoagak etxean izango zuen 18 urteko etxebarritarra, *dandole de comer, cama y la limpieça necesaria*.

“Familia batzuetan lagun bat baino gehiago bizi zen zapatagintzari lotuta



Horrez gain, ikaslea gaixotuz gero lehenengo 8 egunetan zainduko zuen; hortik aurrera bere familiakoek arduratu beharko zuten. Lanerako galtzak eta zapatak eman beharko zizkion, *calzones para trabaxar en el dicho oficio y el calzado necesario*. Hiru urteak pasatutakoan, 100 erreale ordainduko zizkieten Escutisolari. Etxebarriko gazteak, hiru urteko ikasketa aldi haren ondoren, prest egon beharko zuen ofizial gisa lan egiteko, *pueda ganar por si jornal como los demas oficiales del dicho arte*.

1715eko azaroaren 14an Juan de Bazterrica zapataria maisuak lau urtez hartu zuen etxean Agustin de Oiarvide, 15 urteko ikaslea. Hark ere, tarte hartan, ohitura zen bezala, garbiketa eta jan-edanak jasoko zituen, baita behar zituen oinetakoak eta larruzko galtzak ere, *todo el calzado de que tubiere nezesidad y asi vien los calzones de cuero que hubiere menester*. Eta, ikastaldia amaitutakoan, 100 erreale. Lau urteak pasatu aurretik, edozein arrazoi zela-eta, laguntzeari utzi behar izatekotan Agustinen ordezkari bat jarri beharko zuen, *aya de poner un ofizial en casa de el dicho Bazterrica*.

1718. urtean Bazterrica zapataria beste ikasle bat hartu zuen lau urterako: Nicolas de Chopitea, 15 urteko lekeitiarra. Maisuak lanbidez zekien guztia erakutsiko zion gazteari, *le enseñara, en quanto pudiere el dho su ofizio de zapatero*. Lau urteak igarotakoan Chopiteari 100 erreale emango zizkieten, baita larruzko bi galtza ere, *dos pares de calzones de badana*.

Pedro de Alzuru zapataria maisuak hitzarmena egin zuen 1720. urtean Juan eta Francisco de Azcue aita-semeekin, Francisco semeak zerbitzua eman ziezaien 5 urtez, *en su ofizio de zapatero por aprendiz*. Etxean hartuko zuen, *comer, vever, y casa y cama en que este y duerma*; eta, lanbidea ondo irakatsiko zion, ezer ezkutatu gabe, *enseñarle el dho ofizio vien cumplidamte como lo save sin encubrir cosa alguna*. Gainerako kontratuetan jasotzen zen bezala, ikasle hari ere oinetakoak eta galtzak emango zizkieten: *el calzado de zapatos que pudiese romper, y un par de calzones de badana*. Ikastaldia amaitutakoan ohikoak ziren 100 erreale ere poltsikoratuko zituen Franciscok.

Ikaslea edo aprendiz izendatzeko, dokumentazioan, besteak beste, *mancebo* eta *aprendiz* izenak topatu ditugu. 1729an, esaterako, langile hauek agertzen zaizkigu Ibirriaga aldean: *Nicolas de Chopite manzevo de Juan de Basterrica maestro de obra prima (...) Nicolas de Chopite y Joan de Azcue sus criados aprendizes; Pedro de Alzuru y un aprendiz suio llamado Franco [de Azcue]; Agustin de Oiarvide y Miguel de Manzubillaga ofiziales de Pedro Ygnazio de Montalivet*.

1751n Antonio de Yrarragorri zapataria (*maestro de obra prima*) 14 urteko berriatuarra (Juan de Carramiola) hartu zuen bost urtez lanbidea irakasteko. Mantenuaz gain, hiru gauza eman zizkion: alde batetik, zapatak eta galtzak, *zapatos y calzones de vadana necesarios*; eta, bestetik, Gurutzada Santuko bulda, *bulda de la Santa Cruzada*. Bulda erosteak hainbat induljentzia ematen zizkien fededunei, ezagunena hau zen: Hausterre egunean eta Bariku Santuan baraurik ez egitea eta Garizuman okela jan ahal izatea. Baina, Berriatuko zapataria-ikasleak betebeharrak ere bazituen: bost urteak pasatu baino lehen ihes eginez gero, bere gurasoek 300 erreale ordaindu beharko zizkieten zapataria maisuari egonaldiak sortutako gastuak ordaintzeko.

Esan dugun bezala, familia batzuetan lagun bat baino gehiago bizi zen zapatagintzari lotuta. Horren erakusgarri Joseph de Artaza zapataria, aipatu berri dugun Antonio de Yrarragorriren suhia. 1755. urtean Josephek herriko 11 urteko gaztetxo bat hartu zuen ikasle, 6 urterako: Andres de Urquidi. Hurrengo urtean Artazak beste ikasle bat hartu zuen, 4 urterako: Marcos Muguerza, 15 urteko elgoibartarra. Ohiko kontuez gain, urtean dukat bat ordainduko zioten gazteari.

Nikasio zapataria

XX. mendera salto eginda ere, igualtsu, zekitenengatik ikasten zuten lanbidea zapataria gazteek. Horren adibide Nikasio Andonegi Alberdi (1888-1961) zapata-egintzailea dugu. Familiakoak arrantzaleak zituen arren, ez zuen segitu euren arrastoa, izan ere itsasoan ez zen batere ondo moldatzen; zorabiatu egiten zenez oinak lehorrean izatea erabaki zuen. Zipriano Arana zapataria mutrikuarrekin hasi zen ofizioa ikasten. Halako batean, herrira larruak eta zapata-moldeak ekartzera etortzen zen Bilboko “biajantea”ri galdetu zioten ea lanik ote zuen jakin-min handiko ume harentzat Bilbo aldean. Mantenuaren truke joan zen Bizkaiko hiriburura Nikasio gaztea. Hiru bat urte ibili zen ofizioa ikasten, Santiago plazako zapataria batekin. Lanbidea ikasitakoan ostalua bilatu eta urte batzuk eman zituen bertan ofizial. Aurrerago, Mutrikura itzuli eta zapatak egiteari ekin zion, Beheko plazako lokal batean. Bere familiakoei entzunda dakigu Nikasiok Bilbon zapata onak egiten ez ezik beste gauza bat ere ikasi edo barneratu zuela: bere abertzaletasuna sutsuago bizitzeko. Urteetan zinegotzi ibili zen, eta gero alkate. Gerraurreko azken alkate abertzalea izan zen.

Josu Larrañaga Arrieta

Memoria astea

bigarren ez Institutuan

(Gauzak ez dira horrela,
gauzak horrela daude)

Apirilaren 7tik 11ra, bigarren urtez jarraian, Memoria Astea antolatu dugu Euskal Herriaren historia ikasgaitik. Iraganarekiko lotura mantentzea eta historiako gertaeren identifikazioa nahiz aitortza egitea helburu duen astea izan da.

Euskal Herriaren historia ikasgaia batxilergoko 1. mailako hautazko ikasgaia da, eta maila guztietarako ekintza eta jardura sorta presatu dugu. Gerra Zibila, Frankismoa eta Trantsizioa izan ditugu jomuga.

Asteari hasiera ikasleek prestatutako podcast batekin eman diogu. DBH 1. eta 2. mailakoek Gerra Zibileko erakusketa ikusi, eta bisita gidatua jaso dute batxilergoko 1. mailakoen eskutik. Gainera, gaztetxoek Euskal Herriaren historiako ikasleek antzeztutako «Gerra Zibila Mutriku» antzezlanak ikusi dute Zabielen. Gerra Zibileko ibilbide zirkularraz ere gozatu dute DBH 3. mailakoek. Ibilbidean zehar, zenbait testigantza entzun eta horiei lotutako erronkak egin behar izan dituzte. Horiez gain, Irene Galarragak eskainitako «Zinea oroimen historikoa eraikitzeke tresna» hitzaldian izan dira batxilergoko 1. mailakoak eta irakasleak. DBH 4. mailakoek, berriz, Aranzadikoen eskutik «Memoria historikoa orainalditik» tailerraz gozatu dute.

Orain artekoekin batera, ikasgeletan, maila guztietan jardura praktikoak gauzatu dira: Saturrarango kartzela (DBH 2); Abestien lanketa (DBH 3); Maravillas Lamberto (DBH 4); Emakumeen «soldaduska» (BATXI 1); eta Historiako musak jardura praktikoa landu da batxilergoko 2. mailan.

Antolatzaileok balorazio positiboa egin dugu eta eskerrak eman nahi dizkiegu lagundu duten guztiei.

MEMORIA ATEA

APIRILAREN 7TIK 11RA

Gauzak ez dira horrela,
gauzak horrela daude

ASTELEHENA 7

- DBH15. Gerra Zibila Mutriku erakusketa. (8:15-45)
- DBH14. Gerra Zibila Mutriku erakusketa. (12:15-45)
- DBH 12. Gerra Zibila Mutriku erakusketa. (9:00-30)
- Batxi 1 eta irakasleak. Hitzaldi: "Zinea oroimen historikoa eraikitzeke tresna". Irene Galarraga. Aretoa: 10:45-11:40
- Hesigabezi: "Emakumeen soldaduska" jardura praktikoa.

ASTEARTEA 8

- DBH12A. Gerra Zibila Mutriku erakusketa (8:00-8:30)
- DBH 12C. Gerra Zibila Mutriku erakusketa (9:00-9:30)
- DBH14A eta B. Aranzadi "Memoria historikoa orainalditik" tailerra (Gelan). 8:00-12:30
- DBH12B. "Saturrarango" jardura praktikoa

OSTEGUNA 10

- DBH3. Gerra Zibileko ibilbidea. 8:00-12:10
- DBH4. "Maravillas Lamberto" jardura praktikoa

ASTEAZKENA 9

- DBH4C. Aranzadi (Memoria historikoa orainalditik) Gelan. 8:00-12:30
- DBH12A. "Saturrarango" jardura praktikoa
- DBH3. "Abestien lanketa" jardura praktikoa

OSTIRALA 11

- DBH1. Gerra Zibileko antzerkia Zabilen 8:55-10:00
- Batxi2. Artearen historia "Historiako musak" jardura praktikoa

APIRILA

Batxi 2. Irteera.
"Martxoak 3ko gertaerak".
Gasteiz (Zaramagara)

EHKO HISTORIAKO IKASLEAK

Historia ikasleak

*Jardura praktikoak gelan egingo dira Gizarte mintegiko kideek gidatuta.



Mutrikuko Bigarren Hezkuntzako Institutuko Historia ikasleak

PAUSO

PODOLOGIA KLINIKA

943 01 49 05 - 747 43 48 52
Astillero Kalea 2 behe, Deba

PTERO

943 60 36 43

Barrenkale 9 - Mutriku

LEA-ARTIBAI

Hileta zerbitzuak - Beilatokia

MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20

ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

Kalbaixo

JATETXEA

Laranga Auzoa
Tel. 943 60 32 56
kalbaixo@gmail.com
MUTRIKU - Gipuzkoa



Helduen mailako lehen saria **Emma Montag**

Maitane Arizti (Gasteiz, 1982)

Goizeko ordu biak dira, sugarrak azken solairuetara iristen ari dira. Auzokoen desfilea, soinean dituzte txabusinak, pijamak eta pantuflak, hitzak aurkitzen ez dituenaren amorruz, madarikazioak botatzen dituzte, gau absurdo baten itzalak arrastan. Bigarren C-ko emakumeak soineko dotorea darama soinean, belusezkoa, irribarre galdua, begietan txinpartak: etxeko liburutegia errauts bihurtu nahi izan du. Nola iritsi ote den amildegira, galdu ote den eleberri erromantikoetako orrien artean, alde batera utziak Faulkner, Flaubert, Txejov. Orain, ordu txikitan, guztia dago sutan. Erretzen ari da Pizarnik, erretzen ari dira Brontëtarak, erretzen ari da Bradbury, profezia autokonplutuan. Gaur, keak gora egiten duelarik, auzokideek arnasten dituzte gizateriaren fantasmak.

ziriako andonegi mikroipuin lehiaketa 2025

Gazteen mailako lehen saria
Itsasoko kolpea

Laura Bedialauneta Legarda
(Mutriku, 2011)

Orain dela bi urte desagertu zen nire senarra, itsasora bainu bat hartzera joan, eta gehiago ez dut ikusi. Esan nion egun hartan itsasoa ez zegoela ondo, baina bera, beti bezala, niri kasurik egin gabe joan zen. Denbora luzea daramat egunero hondartzara joaten eta leku ezkutu batean loreak lagatzen berarentzat, badakidalako hori zela bere leku gustukoena. Hara joaten naizen bakoitzean gogoratzen dut nola beti etxean apurtzen ziren lurreko egurrezko taulak konpontzen ibiltzen zen, baina inork ez dakiena da egurrezko taulak berak apurtzen zituela ni lurraren kontra botatzen. Bakarrik espero dut ondo egotea ur azpian, justu laga nuen leku ezkutu hartan.

Mutrikuar onenarentzako saria
Nire anaia

Ayate Masbouh
(Mutriku, 2008)

Erdi zorabiatuta eta bihotzean min handiarekin esnatu nintzen. Ohe batean negoen, baina ez zen nirea. Ondoan gutun bat neukan eta irakurtzea erabaki nuen.

“Lo nengoen deia jaso nuenean. Goizaldea zen, egunsentiko hirurak gutxi gora-behera. Deia eskegi eta korrika atera nintzen etxetik ospitalera joateko. Iristean, nire anaiari buruz galdetu eta gela zein zen adieraztean, bertara hurbildu nintzen. Medikuak egoera kontatu zidan. Hau irakur-tzen ari bazara, Jon, anaia maitea, jakin ezazu operazioa ondo atera dela eta orain barruan daukazun bihotza behin nirea izandakoa dela.

Zaindu.

Zure ahizpa.”



ZELAIETA JATETXEA

Olatz auzoa · Mutriku · 943604595

zabalik asteburuetan
eta jai egunetan



BERTSO ESKOLA

sortzaileei omenaldia



San Juan jatetxean, 2025eko martxoaren 29an

Argazkiak: Begipuntuan

ASTIGARRAGA ANAIK, S.L.U



ERAIKETAK

Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938

e-mail: astigarragamutriku@outlook.es

Txurruka Tteak., 28 beheka - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)



Ziortza

ILEAPAINDEGIA



943945308

Jose Maria Alcibar 10

Ziortza_ileapaindegia



....ZORIONAGURRAK....



ALIZE

Zorionak gure neska politxari apirilaren 22an urte berri bat beteko duelako! Muxuak zuretzat etxeko danon partez, batez ere anaia Peioren partez!



ANDREA, IZARO eta LAIA

18 urte ezia egunero betetzen... Zorionak Izaro, Laia eta Andrea zuen lagun minan partez!!!
Kotxia ateatzeko desiatzen goz kuadrilliaaa!!!!
Hemezortzi muxuu!



ELAIA

Zorionak Elaia, martxoaren 30ean 5 urte egin dituzulako. Segi horren maitagarria izaten. Etxeko danon partez muxuak zuretzat!



ILARGI

Zorionak zure hirugarren urtebetetzian! Ilargiraino ta buelta maitxe zaitxugu!



OIHAN

Zorionak Txapeldun! 6 urte haundi ein ditzuzu dauaneko! Matxo erraldoi bat danon partez




JULE

Zorionak gure sorgintxuai! Ondo pasau eguna. Bi muxu erraldoi lera, ixiko, osaba ,aume eta atxonan partez.



PEIO

Ongi etorri Peio! Gogoz eta irrikaz gaude zu lastantzeko. Matxo haundi bat eta zorionak familiari.



ENARA

Apirilak 21ean 10 urte betetzen dituzulako zorionak zure familiaren partez, batez ere Nahia, Ekaitz, Suhar eta Liherren partez.



INHAR

Zorionak, Inhar! Dagoeneko 4. pisura ere altxatu ze! Seguru panorama ederra izango dezula inguruan! Muxu haundi bat etxeko danon partez!



LAGUNA

Zoixonak lagun! Segi horrelakoa izaten urte askuan, eta elkarrekin ospatzen jarraituko dugu.

ZORIONTZEKO eta ARGAZKI ZAHARRAK ERAKUSTEKO

ansorregi oinetakoak #
aldizkaria@kalaputxi.eus #
whatsapp 635748393



ANSORREGI
oinetakoak

erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com



Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia

Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

Orgazki Zaharrak



«Gaztañadi» (gaur, «Gaztañegi») baserri aurrean, 1949 urte aldera Galbaixo egunean.

Goian, Don Rafael Arruti apaiza, Erramon Arruti (bere aita), Joakina Arruti, Jose Arruti, Benita Enekotegi (Eskoriatzakoa), «Kostola» baserriko Lucia Mendizabal eta Maria Arruti. Behean, Maritxu Arruti, «Kostola» baserriko Maria Luisa Arriola eta Isabel Arruti.



1967 urte inguruan, Malenetan

Idurre Lurdes Illarramendi eta Rita Garagarza kitarra jotzen eta kantuan.

Atzean, Rita Mancisidor, Lurdes Maxantin, Ana Rosa Landa...

APIRILA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
21 Lon Apraiz	22 Lon Apraiz	23 Lon Apraiz	24 Lon Apraiz	25 Lasuen Ele	26 Lasuen Ele	27 Lasuen Ele
28 Zalduegi	29 Zalduegi	30 Zalduegi				

MAIATZA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

			1 Zalduegi	2 Burgoa	3 Burgoa (2)	4 Burgoa
5 Lasuen Ele	6 Lasuen Ele	7 Lasuen Ele	8 Lasuen Ele	9 Lon Apraiz	10 Lon Apraiz	11 Lon Apraiz
12 Burgoa	13 Burgoa	14 Burgoa	15 Burgoa	16 Zalduegi	17 Zalduegi (1)	18 Zalduegi
19 Lon Apraiz	20 Lon Apraiz	21 Lon Apraiz	22 Lon Apraiz	23 Lasuen Ele	24 Lasuen Ele	25 Lasuen Ele

EGUNEKO GUARDIA ZERBITZUA

09:00 - 22:00
Larunbat goizetan 09:30-13:00
Igande goizetan 11:00-13:00

Lasuen-Elezgarai.....626 611 392
Lon Apraiz.....630 055 097
Hiart Burgoa (Deba)667 338 890
Amaia Zalduegi (Deba)... 669 262 201

GAUEKO GUARDIA ZERBITZUA

22:00 - 09:00
Mikel Lekunberri Alberdi...943 20 42 30
Isasi 31, 20600 Eibar

APIRILA

29	Liburutegia	17:15	Ipuin kontaketa: "Karabi Karaba"
	Zabiel	18:00	Posible al da komunitatean bizitzea?
30	Liburutegia	18:00	Liburuaren asteko zozketa eguna
...	Beheko plaza	19:30	EUSKARALDIA: Hamaikakoaren aurkezpena

MAIATZA

8	Zabiel	19:00	Hitzaldia: Evaristo Churrua injeniarria
9	Zabiel	18:30	Kartoia, papera, guraizeak Erakusketa irekiera
...	9tik 18ra		Erakusketa: Kartoia, papera, guraizeak
10	Beheko plaza	10:00	Herriko ekoizleen Merkatu Txikia
...	Portuan	17:00	Trainerillak: Gipuzkoako Liga.
...	Konbentua	19:00	«EMAKANTA» abesbatzen kontzertua
maiatzaren 15etik 25era EUSKARALDIA			
16	Konbentua	18:00	Abesbatzak: Anaiarte eta Eibarko jubilatua
19	Zabiel (25era)		Institutuko ikasleen Adierazpen artistikoa
24	Portuan	11:00	Traineruak: Mutrikuko XXIV. Bandera

BISITA GIDATUAK

· Zazpi hondartzak · Mutriku marinela · Olatu planta ·
· Nautilus, Flysheko fosilak · Arrietakua jauregia ·
Turismo bulegoan edo www.geoparkea.eus helbidean

ODOLA EMATEA 2025

apirilak 25

ekainak 20 · abuztuak 8 · urriak 17 · abenduak 19
17:00etatik 20:30ak arte anbulatorioan

 Gipuzkoako Odol Emaileak

aldizkaria@kalaputxi.eus
whatsapp 635748393
apirileko aldizkarian
argitaratzeko
maiatzaren 9rako
bidali zuen mezuak

MENDI-IRTEERAK 2025

- Maiatzak 18** Sunbilla – Mendaur – Sunbilla (Aurrera MT)
Ekainak 1 Arnoko XIX. Mendi Ibilaldia (Burumendi MT)
Ekainak 15 Brinkola – Biozkornia – Arantzazu. (Burdinkurutz MT)
Uztailak 6, 7 eta 8 Pirinioak
7 > Sallent – Musales – Ibon del Respumoso – La Sarra – Sallent
8 > Sallent – Pazino – Escarrilla.
Irailak 7 Bizkarreta – Urepel. Ezkabako ihesaren azken etapa (Burumendi)
Urriak 19 Arrankudiaga – Goikogane – Ganekogorta – Alonsotegi (Aurrera)
Urriak 26 Euskal Mendizale Federazioko XLIII. eta Gipuzkoako
Mendizale Federazioko XXXIX. Mendizale Helduentzako
Ibilaldia (Burumendi MT)
Azaroak 16 Samiño – Izazpi – Mandubia (Burdinkurutz MT)
Abenduak 14 Mutrikun. Urteko azken txangoa (Burumendi MT)



IBARPLAS
leihoaren erreferentzia

**Lehen urratsak,
lehen barreak,
nortasuna eraikiko
duten lehen
esperientziak!**

**Matrikulazioa
urte osoan
zabalik.**



**ZAINZA, HURBILTASUNA
KALITATEZKO HEZKUNTZA,
KULTURARTEKOTASUNA,
INPLIKAZIOA, KONPROMISOA,
KONFIANTZA**

Samuela
Eskola mutrikuarra

MATRIKULA ZABALIK



APIRILAREN 22tik MAIATZAREN 9ra
matrikulatzeko, deitu haurreskolara
Zuen zain izango gara!



ATE
IREKIAK
APIRILAK 29
17:00etan



Mutrikuko Haurreskola

Haurreskola txikia, familia handia

943 60 41 19

mutriku.mutriku@haurreskolak.eus

www.haurreskolak.eus

Haurreskolak

